

Zientzia eta Teknologia Fakultatea

# PLAN ESTRATEGIKOA

## Luzapena 2021 - 2023

[www.ehu.es/ztf-fct](http://www.ehu.es/ztf-fct)







**FAKULTATEKO BATZARREAN ONARTUTA 2021KO UZTAILAREN 21EAN**



## AURKIBIDEA

1. Aurkezpena .....	1
2. Metodologia .....	1
3. Eginkizuna .....	1
4. AMIA Analisia .....	2
5. Ikuspegia.....	7
6. Estrategia.....	7
7. Balioak .....	15
8. Mapa estrategikoa .....	16
9. Aginte-taula estrategikoa .....	17
I. ERANSKINA: Hausnarketa-fitxak.....	22
II. ERANSKINA: Hausnarketa-taldeak.....	35



## 1. AURKEZPENA

2005etik aurrera, UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateak (ZTF-FCT) bere jardura definitzen duten gidalerro estrategikoak dauzka, plan estrategiko baten barne daudenak. Azken hausnarketa 2017ko bigarren lauhilekoan burutu genuen, eta horrek eraman ginduen 2017-2020 aldirako Ikastegiko hirugarren Plan Estrategikoa onartzera 2017ko uztailean. Beraz, 2021ean Ikastegiko laugarren Plan Estrategikoa definitzeko hausnarketa egin beharko genuke. Nolanahi ere, eta UPV/EHUko Plan Estrategikoa 2021ean amaitzen dela kontuan hartuta, barne hausnarketa bat egitea erabaki dugu ZTF-FCTko Plan Estrategikoa beste bi urtez luzatzeko, UPV/EHUko gidalerro estrategiko berriak ezagutu ahal izateko, eta, horrela, ZTF-FCTko estrategiak UPV/EHUkoekin lerrokatu ahal izateko.

Barne hausnarketa hori egiteko Ikastegiko AZLak, IRIak eta ikasleek osatutako lantaldeak sortu ditugu, Kalitate eta Ebaluazio Instituzionalerako Zerbitzuko (KEIZ-SCEI) bideratzaileek zuzendu dituztenak. Beren ekarpenak eta konpromisoa funtsezkoa izan dira AMIA egiteko; horregatik, Dekanotza taldeak beren parte-hartzea eskertu nahi die.

## 2. METODOLOGIA

Barne hausnarketan Ikastegiko interes taldeek hartu dute parte: AZLak, IRIak eta ikasleek. Talde bakoitzeko kideak hautatu dira hausnarketa-taldeak osatzeko. Zehazki, hurrengo lantaldeak sortu dira:

- 1.- Gradu Koordinaatzaileak
- 2.-Masterreko Arduradunak
- 3.-Sailtako Zuzendariak
- 4.-AZL
- 5.-IRI
- 6.-Graduko taldeetako ordezkariak

Talde bakoitzak Dekanotza taldeak sortutako fitxa batzuen inguruan egin du hausnarketa (ikus I Eranskina). Lehenengo bost taldeak, zeinetako kideak II Eranskinean zehazten diren, bateratze saio bakar batean elkartu dira. KEIZ-SCEIko bideratzailea izan zen saio horretako buru, eta hark txosten bat sortu zuen saioan zehar identifikatutako ahultasun (A), mehatxu (M), indargune (I) eta aukerekin (A) (AMIA). Taldeetako ordezkariari eskatu zitzaion beren hausnarketa inkesta anonimo baten bitartez helarazteko, beren iritzia askatasun handiagoz adierazi zezaten; osotara, 12 erantzun jaso genituen. AMIAko analisisa txosten honetako hirugarren atalean laburbiltzen da.

Talde bakoitzeko AMIA ezagutu ondoren, Dekanotza taldea bildu da jasotako informazioa aztertzeko, 2017-2020ko Plan Estrategikoan definitutako Eginkizuna eta Ikuskeraren baliaagarritasuna berrikusteko, eta helburu eta eginkizun estrategikoak zehazteko; eta, horrekin batera, mapa estrategikoa osatu du.

## 3. EGINKIZUNA

Dekanotza taldea 2017-2020ko Plan Estrategikoan jasotzen den ZTF-FCTko eginkizuna berrikustez arduratu da. Horretarako, ondorengo puntuak aztertu zituzten:

- Fakultatearen izateko arrazoia
- Egiten dituen jarduerak
- Helburu dituen bezeroak
- Alderdi bereizgarriak


Alderdi horiek aztertu ondoren, eta ondorioetan Fakultateko ezaugarriak eta berezitasunak jaso ondoren, ikusi dugu Planean jasotzen den Eginkizuna baliagarria izaten jarraitzen duela eta Ikastegiko izaera definitzen duela. Beraz, horrela definitzen dugu Eginkizuna:

## EGINKIZUNA

Zientzia eta Teknologia Fakultatea-Facultad de Ciencia y Tecnología UPV/EHUko zentro bat da eta bere eginkizuna zientzia eta teknologia arloetan ezagutza sortzea, garatzea eta zabaltzea da. Bere erantzukizuna da espiritu kritikoa duten zientzialariei eta profesionaleri erabateko prestakuntza ematea. Bere kudeaketaren oinarria dira irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren berrikuntza eta zerbitzatzen duen gizartearen premiei erantzutea.

## 4. AMIA ANALISIA

Jakina denez, AMIA bat egitea (ikus 1 irudia) aztergai baten aukera, mehatxu, indargune eta ahuleziak identifikatzean datza. Kasu honetan, ZTF-FCTko alderdi horiek zehaztea da helburua, etorkizuneko helburu estrategikoak definitu ahal izateko, eta, era horretan, ikusitako alderdi positiboak indartzeko eta ikusitako hutsuneak zuzentzeko.



Irudia 1: AMIAn aztertutako alderdiak

Lantaldeen hausnarketari esker, Fakultateko hurrengo AMIA definitu ahal izan dugu:

### Indarguneak

#### Irakaskuntza:

- F1. Zientzia eta Teknologiako gradu eta masterren formazio-eskaintzaren kalitate eta ugaritasuna
- F2. Ikasle berriak erakartzeko jardueren ugaritasuna eta ikasle egresatuen jarraipena (inkestak, enplegarritasuna..)
- F3. Ikasleen bokazio handia
- F4. Egresatuen profil egokia; ondorioz, lan-merkatuan titulazio zehatz batzuetan egresatutako ikasleekiko eskari handia
- F5. Ongi prestatutako eta adeitsuak diren irakasleak, ikasle-irakasle harreman egokiarekin, irakaskuntza- zein ikerketa-lanetan inplikatzeko direnak



## Indarguneak

### Irakaskuntza:

- F6. Irakasleen parte-hartzea irakaskuntza berrikuntzarako proiektuetan eta egituratutako irakaskuntza taldeetan
- F7. GRAL eta MALen balorazio positiboa, lehenengo ikerketa-esperientzia gisa
- F8. Ikasleei eskaintzen zaizkien jarduera osagarriko programekiko interesa (tailerrak, hitzaldiak..)

### Koordinazioa:

- F9. Batzorde zein pertsona bakarreko karguen egitura zabala koordinazio bertikal zein horizontala hobetzeko, ikastegiko kudeaketa akademikoan laguntzen duena
- F10. Ikasleei eskaintutako arreta eta orientazio pertsonalizatua
- F11. IRIaren prestutasuna masterreko batzorde akademikoak berritzeko
- F12. Ikasleen parte-hartzea Buddy Programan

### Ikerketa:

- F13. Motibazioa duten langileen produkzio zientifiko handia, zailtasunak izan arren
- F14. Lan gogorra ezagutza zabaltzeko eta transmititzeko

### Instalazioak eta zerbitzuak:

- F15. Instalazio egokiak, mugikortasun urriko pertsonari egokitutako espazioekin
- F16. Fakultatean eskuragarri dauden zerbitzuen, baliabideen eta teknologiaren egokitasuna, oro har
- F17. Produktu arriskutsu eta zaharkituak jasotzeko sistema egokia
- F18. Garbitasun eta kontserbazio egoera ona
- F19. Multimedia zerbitzu ona
- F20. Instalazioen kexuei emandako arreta ona, eta IRIaren kudeaketaren oso balorazio positiboa azpiegituren beharrei dagokionez
- F21. Webgunean eskaintzen den instalazio eta zerbitzuen inguruko informazio egokia

### Antolaketa eta kudeaketa:

- F22. Eskola egutegiaren antolaketarekiko, ordutegiarekiko, ikasgelen kudeaketarekiko... aldeko jarrera, baita ikastegiko antolaketarekiko ere
- F23. Fakultatean eta IRIaren lan postuan hasterakoan ematen den hasierako agurra eta informazioa
- F24. Dekanotza taldearengana, zerbitzuetako arduradunengana, sailtako zuzendariengana, gradu koordinatzaileengana eta masterreko arduradunengana zuzentzeko erraztasuna
- F25. Iradokizunak, kexak eta erreklamazioak aurkezteko aukera
- F26. Euskara maila aproposa

### Fakultatean integratzea:

- F27. Fakultateak kanpora begira ematen duen irudi ona
- F28. Ikasleentzat antolatutako jardueretarako laguntza (Bioforo, Zientziaren Astea..)
- F29. Ikasleak jarduera horietan parte hartzera animatzeko modu aproposa

## Ahultasunak

### Irakaskuntza:

- D1. Euskaraz/ingelesez/gaztelaniazko hautazkoen arteko lehia irakasgaien eskaintzan, gradu ko- ikasle kopuru txikiarengatik (numerus clausus); ondorioz, gradu askotan euskarazko eskaintza oso mugatua da
- D2. Ingelesezko irakasgaien eskaintza txikia zenbait gradu eta masterretan; ondorioz, atzerriko ikasleen etorrera mugatzen da
- D3. EAE kanpoko ikasleak erakartzeko arazoak

## Ahultasunak

### Irakaskuntza:

- D4. Gradu batzuetan eskaria txikia da, eta, ondorioz, gutxieneko nota baxua da, eta horrek emaitza akademikoetan eta ikasketen uzte-tasan eragina du
- D5. Masterretan sartzen diren ikasle berrien profila, irakasleen ebaluazioa doitzera behartzen duena
- D6. Master zehatzen eskaintza mugatua adar batzuetan
- D7. Zeharkako gaitasunak garatzeko integrazio falta graduatan
- D8. Zailtasunak ikastegian antolatzen diren jardueren berri emateko, bai lan-eskaintzen kudeaketan eta komunikazioan, baita Fakultateak antolatzen dituen programetan ere (Bizkaia Talent..)
- D9. Irakaskuntza gutxi baloratzen da ikerketarekin alderatuta
- D10. Euskal Herriko enpresa zientifiko-teknologikoekiko harremana hobetu liteke

### Koordinazioa:

- D11. Irakasle taldeen parte-hartze txikia graduko irakasgaiak koordinatzerako orduan
- D12. Maila bateko irakasgai desberdinetako irakasleen arteko koordinazio falta lanen entregak ikasturtean zehar planifikatzeko
- D13. Kexak, iradokizunak eta erreklamazioak egiteko prozesuaren ezagutza falta
- D14. Koordinazioaz antolatzen diren figurak gutxi baloratzen dira, bai AZL, baita IRIaren aldetik ere
- D15. Zailtasunak Gradu Ikasketen Batzordeko karguak berritzeko

### Ikerketa:

- D16. Fakultatean egiten den ikerketaren dibulgazio eta hedapen txikia Ikastegian bertan
- D17. Eskuragarri dauden baliabideen ezagutza falta
- D18. Fakultateko ikerketa taldeen arteko interrelazio txikia
- D19. Ikertzaile gazteek ikerketa baten hasierako etapan duten irakaskuntza-karga handia
- D20. Optimizatu gabeko ikerketa-espazioak

### Instalazioak eta zerbitzuak:

- D21. Fakultateko seinaleztapena hobetzeke eta eguneratu gabekoa
- D22. Irudiaren kalitatea, bai online klaseen grabazioan, baita ikasgeletako kanoien proiektioan ere
- D23. Takilla kopuru eta taldean lan egiteko espazio mugatua
- D24. Mugikortasun urriko pertsonen Fakultateko toki batzuetan zehar mugitzeko zailtasunak
- D25. Eraikinaren mantentze eta erosotasun egoera
- D26. Kopiagintza zerbitzua ez da nahikoa eta ordutegia ez da erregularra
- D27. AZL eta IRIaren laguntza txikia lan administratiboetarako
- D28. Ikasgelak ez dira egokiak metodologia aktiboak praktikan jartzeko
- D29. AZL eta IRIarentzako irakaskuntza-laborategi eta bulego gutxi
- D30. Ikasleei mailegatzen zaion ekipamendu informatikoa gaurkotu gabe
- D31. Komunikazio plan baten falta
- D32. Fakultatean eskuragarri dauden baliabide eta zerbitzu falta masterrentzako, Graduek erabiltzen ez badituzte

### Antolaketa eta kudeaketa:

- D33. Ordutegia eta azterketen egutegia hobetu daiteke gradu batzuetan
- D34. AZLak koordinatzaileei laguntzea ordutegiak sortzen eta berrikusten

## Ahultasunak

### Antolaketa eta kudeaketa:

- D35. Departamentuetan lanean hasten diren langileek ez dituzte lanpostuaren beharrak eta funtzioak ezagutzen
- D36. AZLaren falta
- D37. Irakasle berrien eguneratzea behin lauhilekoa hasita
- D38. IRIaren lan burokratikoaren areagotzea
- D39. Masterren kudeaketa Fakultateko funtzionamendura egokitzea
- D40. Masterrak ez dira behar bezainbeste sustatzen

### Fakultatean integratzea:

- D41. Departamentuetako zuzendarien arteko komunikazioa hobetzea
- D42. Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Sailak Euskara Batzordean parte hartzea
- D43. Ikasle zein langileak ZTF-FCTko parte direla sentitzea
- D44. Ikasle Kontseiluaren funtzionamendua
- D45. Ikasleek ez dute aktiboki parte hartzen Fakultateko bizitzan edo elkarteetan
- D46. IRIaren arteko harremana hobetzea
- D47. IRIari harrera egiteko prozedimendua

## Aukerak

### Irakaskuntza:

- O1. Gaitasun desberdinak dituzten ikasle berriak, bigarren hezkuntzan zehar irakaskuntza metodologia berritzaileak ezagutu dituztenak
- O2. Ikasle guztiak baliabide teknologikoak izateko estrategiak lantzea, baliabide horiek irakaskuntza metodologiei laguntzen baitiote
- O3. Ikasle egresatuekin kontaktuan jartzea, lan egiten duten enprekin akordioak zehazteko
- O4. Zentro Teknologikoekin harremanak sortzeko aukera, ikasleen formakuntza hobetzeko
- O5. Enprekin lankidetzan hitzarmenak sinatzea ikasleak lan-mundura sar daitezela

### Koordinazioa:

- O6. Buddy Programa Masterreko ikasleei zabaltzea

### Ikerketa:

- O7. Irakaskuntzan laguntza ematen duten laborategiko teknikariak ikerketa-laborategietan laguntzea, irakaskuntzarik ez dagoenean
- O8. Ikerketa-emaitzak zabaltzea eta gizartean ezagutaraztea, bitarteko gehiago lortu ahal izateko
- O9. Jakintza zientifiko-teknikoa Euskal Herriko ingurune sozio-ekonomikorako transferentzia areagotzea

### Antolaketa eta kudeaketa:

- O10. UPV/EHUK erreferentziako AZL plantilla eguneratzea
- O11. Egoitza elektronikoa martxan jartzea

### Fakultatean integratzea:

- O12. Jarduerak antolatzea langileak elkar ezagutzeko, hala nola Bioforoa

## **Mehatxuak**

### **Irakaskuntza:**

- A1. Fakultateak urtero ikasturte akademikoko irakaskuntza eskaintza antolatzeko duen erabaki-aukera txikia: blokean bildutako irakasgaiak, irakaskuntza modalitateetako talde kopurua, irakasgaiak kentzea matrikulatutako ikasle kopuru txikiagatik, mugikortasun handia eskaintzen duten graduen eskari handia, ingelesez eskaintzen diren irakasgaiak...
- A2. Doktorego beken politika
- A3. Masterreko titulazioetan eskainitako hautazko ikasgaiak ez daude zehaztuta, eta, ondorioz, ikasleek ez dute behin betiko eskaintza ezagutzen izena eman aurretik
- A4. Hainbat ikastegitan irakasten diren masterrak kudeatzeko eta irakasteko zailtasunak
- A5. Unibertsitate pribatuetan sortzen ari diren gradu berrietako arautegi malguak
- A6. Giza baliabide mugatuak, berritzen zailak direnak
- A7. Unibertsitateko ikasketak bigarren hezkuntzako ikasketen jarraipena izateko joera
- A8. Ikasle berriek Zientziei lotutako gaien inguruan duten ezagutza gutxitzea
- A9. Bigarren hezkuntzako ikasleei eskainitako orientazio txarra
- A10. Emaitza akademikoek eta gogobetetze-inkestek irakasleen DOCENTIAZ ebaluazioan duten eragina
- A11. IRLari zuzendutako formazio ikastaroen plaza kopuru txikia eta eskaintzaren diseinuan parte-hartzeko aukera txikia

### **Koordinazioa:**

- A12. Gutxi baloratzen da irakaskuntza koordinazioa; irakaskuntzaren kudeaketa, oro har, boluntarioek egiten dute
- A13. Kurso eta gradu etako ikasgela birtualak ez dira baliagarriak koordinaziorako
- A14. Masterreko webgune instituzionala ez da egokia
- A15. Unibertsitate arteko masterretako administrazioen koordinazioa eta komunikazioa

### **Ikerketa:**

- A16. Ikerketari lotutako kudeaketa administratiboari eskainitako gehiegizko ardurak
- A17. Ikertzaile gazteen egoera
- A18. Ikerketan ematen den belaunaldi arteko erreleboa
- A19. Nazioarteko erakundeekin izapideak egiteko erabiltzen den dokumentazioa ingelesera itzuli gabe
- A20. Murrizketek txarrerako eragiten dute ikerketa-laboregietan, doktorego tesien kopuruan, ikerketan laguntzako langileetan, hitzaldietarako gonbidapenetan, mintegien antolaketan...
- A21. Ikerketa ikerketa-zentroetara lekualdatzea

### **Instalazioak eta zerbitzuak:**

- A22. Wifiaren kalitatea toki batzuetan
- A23. Arreta informatikoaren zerbitzua hobetu daiteke: arazoaren kudeaketa, ordenagailu korporatiboetan softwarea instalatzeko arazoak...
- A24. Ekipamendu informatikoaren berritzea langileentzat
- A25. Ekipamendu informatikoa esleitzeko erregistroaren prozedura
- A26. Atzerapena AZLa ordezkatzekoan
- A27. Ikasleen iritzia eta gogobetetasuna ezagutzeko erraminta desegokiak

### **Antolaketa eta kudeaketa:**

- A28. GAUR kudeaketa-erraminta ez da malgua eta ez da kudeaketa beharretara egokitzen
- A29. Akreditazioa duen IRLaren sustapen falta
- A30. Irakasle Atxiki gisa kontratatutako irakasleek zailtasunak dituzte sarbide prozesuan
- A31. Irakasgaien arteko koordinazioa
- A32. Jubilazioen eragina aurreikusteko zailtasuna
- A33. AZLaren falta kategoriatan batzuetan (aidb. teknikariak, masterreko laborategi-teknikariak...)

## **Mehatxuak**

### **Antolaketa eta kudeaketa:**

- A34. Sailetako langile berriek zailtasunak dituzte lanpostuko eginbeharrak eta funtzioak aurrera eramateko
- A35. Masterreko sarbide- eta matrikulazio-prozesua ez da eraginkorra, horregatik, desabantailan gaude beste unibertsitate batzuekin alderatuta
- A36. Malgutasun txikia Erasmus Mundusen garapenean
- A37. Masterreko arduradunak ez dira nahikoa balioesten
- A38. UPV/EHUren finantzazioa ez da nahikoa azpiegitura eta masterreko MArentzat
- A39. Ikasleak masterretara apuntatu daitezzen laguntza eta diru-laguntza falta

Azkeneko AMIAN ez ziren Fakultatearen jarduera-eremutik kanpo gelditzen ziren gaiak bildu. Esaterako, taldeko eztabaidetan hurrengo gaiak jorratu ziren: hautazko irakasgaiak eskaintzeko irizpideak edo GAUR kudeaketa-erramintan hautemandako hutsuneak. Arazo horiek UPV/EHUko goi-mailako eskaerei dagozkie. Horrez gain, batera bildu dira eztabaidetan zehar jorratutako lotura zuten gaiak.

## **5. IKUSPEGIA**

Ikuspegian definitzen da zein den lortu nahi den helburua Plan Estrategikoaren etapa amaitu ondoren. Erronkak planteatu behar ditu, baina, aldi berean, neurgarriak eta eskuragarriak izan behar dute. Fakultateak lortu nahi dituen emaitzei erantzuteaz gain, ikasleek, komunitate zientifikoak, enplegatzaileek, gizarteak eta unibertsitate-komunitateak Fakultatea hauteman nahi duten moduari ere erantzuten die.

Ikastegiko Zeregina, baita AMIAko analisisian jasotako ondorioak kontuan izanda ere, Dekanotza taldeak Ikuspegiko bost gidalerro nagusiak berrikusi zituen, eta zehaztu zen ez zela beharrezkoa aldaketarik egitea. Beraz, hurrengo da Plan honetako Ikuspegia:

### **IKUSPEGIA**

**Ikasleek** bere kalitateagatik eta bere irakaskuntza-eskaintza zabalagatik ikastegi bikaintzat hartzea.

**Komunitate zientifikoak** bere ikerketa-maila altuagatik eta bere aniztasunagatik aintzat hartzea.

**Unibertsitate-komunitateak** bere kudeaketa aurreratuagatik eta bere etengabeko hobekuntza espirituagatik erreferentzia-fakultatetzat hartzea.

**Enplegatzaileek** arlo zientifiko eta teknologikoan ematen duen formakuntzagatik erreferentzia-zentrotzat hartzea.

**Gizarteak** unibertsitate-ikastegi prestigiotsutzat hartzea.

## **6. ESTRATEGIA**

Fakultateko hirugarren Plan Estrategikoan lau ardatz estrategiko eta bakoitzari dagozkion helburu eta jarduera estrategikoak definitzen dira. Ardatz horiek Irakaskuntza, Ikerketa, Pertsonak eta Kudeaketa, Berrikuntza eta Erantzukizun Soziala dira. Barne AMIA amaitu ondoren, Dekanotza taldeak erabaki du egokia dela Ardatz Estrategikoak mantentzea. Gainera, hirugarren Plan Estrategikoa martxan jarri zenetik, agerikoa izan da aurreikusitako ekintza estrategikoak burutuz joan garela; hala ere, 2021eko maiatzean egindako barne hausnarketan antzemandako ahultasun eta mehastuei aurre egiteko,



beharrezkoa iruditu zaigu Planaren epea luzatzea. Horretarako, beharrezkoa da programatutako ekintza estrategikoak zabaltzea, 1. Ardatzeko helburu estrategikoak hobe zehaztea eta 4. Ardatzean bi helburu estrategiko berri definitzea. Hurrengo tauletan Planean zehaztutako estrategia laburtuko dugu. 2017-2020 epean burututako ekintza estrategikoak \* ikurrarekin markatu ditugu, eta kolore **urdinez** agertzen dira ekintza estrategiko berriak, 2021eko maiatzean egindako barne hausnarketaren ondoren definitu ditugunak.

## 1. Ardatza. Irakaskuntza

Irakaskuntza funtsezko ardatz bat da, zuzenean Fakultateko Eginkizunari lotuta dagoena. Jada hasitako bikaintasunaren bidetik jarraitzeko, eta AMIAko analisiaren emaitzak ikusita, ikasleen formazioa indartzeko ekintza berriak proposatzen dira; era horretan, beren internazionalizazioa sustatzeko, irakaskuntzaren kudeaketa hobetzeko eta Ikastegiko irakaskuntza eskaintza zabaltzeko. Azken puntu horri dagokionez, funtsezkoa iruditzen zaitu *1.4 Helburu Estrategikoa. Graduondoko formakuntza eskaintza lagundu eta hedatzea* helburuaren jardunbidea hedatzea Ikastegiko irakaskuntza eskaintza guztira. Horrez gain, *1.3. Helburu Estrategikoa. Irakasleen arteko koordinazioa hobetzea* helburuaren definizioan zehazten da graduetako titulazioetan jarriko dela bereziki arreta.

### HE.1.1. Ikasleen formakuntza sendotzea eta emaitza akademikoak hobetzea

Ekintzak	Arduradunak
Lehen ikasturtean komunak diren ikasgaiak indartzeko eta ikasleen aurretiazko ezagutzak finkatzeko balioko duten sareko ikastaroak garatzea *	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza
Besteak beste honako hauek barne hartuko dituen zeharkako gaitasunak lantzeko programa bat diseinatzea: ahozko eta idatzizko komunikazioa, curriculum sortu eta defendatzea, segurtasuna eta higiena lanean, bilaketa bibliografikoa, enpresa eta zentro teknologikoen aurkezpen jardunaldiak...*	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza eta Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza
Hezkuntzarako Lankidetzaren Hitzarmenak (HLH) sustatzea, ikasleek kanpoko praktikak egin ditzaten	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza
Ikasleak asebeteko dituzten hautazko irakasgaiak lortzeko lan egitea	Irakaskuntzaren Plangintzarako Dekanordetza
Ikastegiko Graduren batean formakuntza duala ezartzeko bideragarritasuna aztertzea*	Irakaskuntzaren Plangintzarako Dekanordetza
<b>Momentuko eskaintza akademikoaren egokitasuna berrikustea</b>	<b>Dekanoa</b>

**HE.1.1. Ikasleen formakuntza sendotzea eta emaitza akademikoak hobetzea**

<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
Ikasleei eskainitako formazio-eskaintza osagarriaren zabalpena aztertzea	Ikasleen Dekanordea eta Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordea
Enpresa eta Berrikuntza Teknologikoko Zentroyen Aurkezpeneko Jardunaldiak berdiseinatzea	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako dekanordea

**HE.1.2. Ikasleen nazioartekotzea sustatzea**

<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
Graduko ibilbideak ingelesez egiteko azterketa bat sustatzea *	Euskara eta Nazioarteko Harremanen arloko Dekanordetza
Elkartruke akademiko batek dakartzan esperientziei buruzko jardunaldiak antolatzea, horretarako elkartruke-programetan parte hartu izan duten ikasleak gonbidatuz *	Euskara eta Nazioarteko Harremanen arloko Dekanordetza
Incoming eta outgoing ikasleentzako asebetetasun-inkesta bat prestatzea *	Euskara eta Nazioarteko Harremanen arloko Dekanordetza
Nazioarteko titulazio bikoitzekin hitzarmenak sinatzeko aukerak aztertzea	Euskara eta Nazioarteko Harremanen arloko Dekanordetza
Gradu eta masterreko ingelesezko irakaskuntza eskaintza aztertzea	Euskara eta Nazioarteko Harremanen arloko dekanordea
Ikastegiko webgunea ingelesez diseinatzea	Euskara eta Nazioarteko Harremanen arloko dekanordea

**HE.1.3. Irakasleen arteko koordinazioa hobetzea**

<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
4. mailako ikasleei inkesta presentzial bat egitea beren graduko koordinazioa baloratu dezaten *	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza
Hobekuntza-talde bat sortzea irakasleen arteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egin ditzan	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza

### HE.1.3. Irakasleen arteko koordinazioa hobetzea

Ekintzak	Arduradunak
Gradu bakoitzeko espazio birtual bat sortzea (GordeTaldea) koordinazio-ebidentziak gorde daitezkeen	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza
Bildutako irakasgai ugari dituzten graduetako ordutegiak eta azterketa egutegiak aztertzea	Irakaskuntzaren Plangintzarako Dekanordea

### HE.1.4. Ikastegiko formakuntza eskaintza laguntzea eta hedatzea

Ekintzak	Arduradunak
ZTF-FCTak eskaintzen dituen berezko tituluak eta masterrak ezagutzera emateko jardunaldiak antolatzea	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza
Berezko tituluak, masterrak eta graduondoko beste formakuntza batzuk garatzeko erraztasunak ematea *	Dekanotza taldea
Fakultateko webgunean graduondokoen formazio-eskaintzaren inguruko informazio gehigarria txertatzea	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza
Ikasle taldeak sortzea, sare sozialetan beren titulazioen inguruko informazioa zabaltzeko	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza
UOako hitzaldietan jorrotutako gaiei buruzko txosten bat sortzea orientatzaileentzat, eta hura zabaltzea	Ikasleen Dekanordetza

## 2. Ardatza. Ikerketa

Ikerketa lehentasuna duen ardatz bat da Fakultatean. Planean aurreikusitako eta oraindik garatu gabeko 2. Ardatz honetako ekintza estrategikoak burutzeko lan egiten jarraituko dugu. Gainera, AMIAko analisisan antzemandako ahultasunak arintzeko, ekintza berri bat planteatu da 2.3. *Helburu Estrategikoa. Ikerketa-taldeak laguntzea* helburuan.

### HE.2.1. Ikerketa jardueri buruzko ezagutzak hobetzea

Ekintzak	Ekintzak
Fitxa bat sortzea ikastegiko ikerketarako baliabideen inbentario bat izateko	Graduondokoko, Giza Baliabideetako eta Ekonomiako Dekanordetza

<b>HE.2.1. Ikerketa jardueri buruzko ezagutzak hobetzea</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Ekintzak</b>
Fakultateko ikerketa-baliabideak bilduko duen sareko gida bat argitaratzea	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza
<b>HE.2.2. Ikerketa-taldeen arteko harremana laguntzea</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Ekintzak</b>
Ikerketa-taldeen arteko topaketak programatzea urtero	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza eta Graduondokoko, Giza Baliabideetako eta Ekonomiako Dekanordetza
Fakultateko ikerketa-ildoak beste erakunde batzuetan hedatzea eta ikerketa arloan interes komuneko gaiei buruzko bilera mistoak sustatzea	Graduondokoko, Giza Baliabideetako eta Ekonomiako Dekanordetza
<b>HE.2.3. Ikerketa-taldeak laguntzea</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Ekintzak</b>
Ikerketa-taldeen antolatzen dituzten ekintzen hedapena handitzea	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza
Ikastegiko azpiegiturak ikerketa-ekintzak egiteko uztea	Azpiegituretako, Prebentzioko eta Segurtasuneko Dekanordetza
Fakultateko ikerketa-laboregietako segurtasuna zaintzea *	Azpiegituretako, Prebentzioko eta Segurtasuneko Dekanordetza
<a href="#">Ikerketarako espazioen beharrari buruzko memoria bat sortzea</a>	<a href="#">Dekanoa</a>

### **3. Ardatza. Pertsonak**

IRIa, AZLa eta ikasleak funtsezkoak dira zehaztutako Ikuspegia errealitate bihurtzeko. Egindako barne AMIAN, formazio eskaera antzeman dugu IRIaren eta AZLaren aldetik; beraz, 3.3. Helburu Estrategikoaren barne, hiru ekintza berri zehaztu dira eskaera horri erantzuteko. Horrez gain, 3.4. Helburu Estrategikoaren barne, ikasleei eskainitako zerbitzuak hobetzeko ekintza estrategiko berriak proposatzen dira. Gainera,

helburu horren barne, Ikastegiko instalazioak hobetzearen inguruko helburu estrategikoa kendu da, 4. Ardatzeko helburu estrategiko berri baten barne kokatu dugulako. Beraz, 3. Ardatza. Pertsonak puntuari dagokion helburu estrategikoaren barne, hurrengo ekintza estrategikoak proposatzen dira:

<b>HE.3.1. Ikastegiko langile eta ikasleei egindako harrera eta aintzatespena hobetzea</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
AZL/IRI berriei lanean hastea errazteko harrera-eskuliburu bat editatzea*	Administrazio burua
Langile berriei harrera-prozesuari buruzko inkesta bat egitea*	Administrazio burua
Ikastegiko langile eta ikasleen aintzatespenerako protokoloa berrikustea*	Dekanotza taldea
<b>HE.3.2. AZL/IRIaren parte-hartzea sustatzea Fakultateko ekintzetan eta proiektuetan</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
Langileek ikastegiaren hezkuntza-programarekiko duten inplikazioaren garrantziaz kontzientziaztea eta programa horretako parte direlako sentimendua azpimarratzea*	Dekanotza taldea
Docentiaz Programa hedatzeko jardunaldiak antolatzea*	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza
<b>HE.3.3. AZL/IRIaren garapen profesionala hobetzeko tresna berrien inguruko formakuntza sustatzea</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
AZL/IRIaren garapen profesionalerako tresnak identifikatzea	Dekanotza taldea
Irakaskuntzan eta kudeaketan aplikatutako IKTei buruzko tailerrak antolatzea*	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza
<a href="#">Ikastegiko IRIarentzako irakaskuntza berrikuntzarako formazio programa propioa diseinatzea eta sustatzea</a>	<a href="#">Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza</a>
<a href="#">Lanean hasi berriko AZLari eskainitako formazioa indartzea</a>	<a href="#">Administrazio Burua</a>
<b>HE.3.4. Ikasleei eskainitako zerbitzuak hobetzea</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
BAT programa sustatzea, horrela ikasle berrien unibertsitate-bizitzaren hasiera errazteko	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza



<b>HE.3.4. Ikasleei eskainitako zerbitzuak hobetzea</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
Ikasleek egiten dituzten izapide administratiboen itxaronaldia optimizatzeko aukerak aztertzea	Administrazio burua
Ikasle Kontseiluaren eta beste ikasle-elkarte batzuen parte-hartzea sustatzea*	Ikasleen Dekanordetza eta Idazkari Akademikoa
Ikasleen ordezkariekin aldian behingo bilerak antolatzea*	Ikasleen Dekanordetza eta Irakaskuntzaren Plangintzarako Dekanordetza
Takilletarako eta talde-lanetarako espazioa handitzeko aukera aztertzea	Azpiegituretako, Prebentzioko eta Segurtasuneko Dekanordea
Ikasleei mailegatzeko eramangarriak lortzea	Graduondokoko, Giza Baliabideetako eta Ekonomiako Dekanordea
Ikasgeletako ekipamendua hobetzeko aukera aztertzea	Azpiegituretako, Prebentzioko eta Segurtasuneko Dekanordea

#### **4. Ardatza. Kudeaketa, Berrikuntza eta Erantzukizun Soziala**

Ardatz honetan Fakultateko kudeaketa indartzeko, irakaskuntzaren berrikuntza sustatzeko eta erantzukizun sozialari erantzuna emateko lan-lerroak zehazten dira. Barne AMIAko analisisian aztertu ondoren, antzeman da beharrezkoa dela 4.3. Helburu Estrategikoaren barne ekintza estrategiko berri bat planteatzea, baita eraikinaren hobekuntzari eta barne zein kanpo komunikazioa hobetzeari lotutako bi helburu estrategiko berri definitzea ere. Beraz, hurrengoa proposatzen da:

<b>HE. 4.1. Hezkuntza-berrikuntza bilatzen duten proiektuak babestea IRIaren parte-hartzea sustatuz</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
IRIak hezkuntza-berrikuntza ekintzetan parte har dezan laguntza-deialdi bat sortzea *	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza
Irakaskuntzan erabilitako doako baliabide birtualen erabilera aztertzea (laborategi birtualak...)*	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza

<b>HE.4.2. Benchmarkinga sustatzea beste ikastegi batzuekin</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
Fakultatearen intereseko diren beste ikastegi batzuen kudeaketa- eta berrikuntza-esperientziak aztertzea	Dekanotza taldea
<b>HE.4.3. Aurrerapenak egitea kudeaketa aurreratuko sistema inplementatzeko prozesuan</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
Ikastegiko kudeaketa integratuko sisteman urtero hobekuntzak eta aurrerapenak txertatzea	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza eta Administrazio burua
Ikastegiko kudeaketa integratuko sisteman urtero hobekuntzak eta aurrerapenak txertatzea	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza eta Administrazio burua
Prozeduren berrikuspenean IRI/AZLak gehitzea	Dekanotza taldea
Kudeaketa sistemako adierazleen tendentziak berrikustea maximoak eta minimoak egoera errealari egokitzeko	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza
<b>HE.4.4. Erantzukizun Sozialek ekintzak sustatzea</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
Fakultateko etika-eskuliburu bat sortzea *	Dekanotza taldea
Berdintasun Batzordea sustatzea	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza
Egin beharreko ingurugiro-hobekuntzak planifikatzea	Azpiegituretako, Prebentzioko eta Segurtasuneko Dekanordetza
<b>HE.4.5. Dibalgazio zientifikoa sustatzea gizartean</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
Fakultateko kideek egindako ekintzak hedatzea hainbat euskarriren bitartez	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza
Komunikazio-kanal berriak aintzat hartuko dituen hedakuntza-plan bat diseinatzea	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza

#### H.E.4.6. Hobekuntzak egitea eraikinean

Ekintzak	Arduradunak
Eraikinaren egoera eta erosotasuna hobetzea	Azpiegituretako, Prebentzioko eta Segurtasuneko Dekanordetza

#### H.E.4.7. Barne zein kanpo komunikazioa sustatzea

Ekintzak	Arduradunak
Fakultateko albisteak jasotzen dituen online aldizkari bat argitaratzeko bideragarritasuna aztertzea	Dekanoa
Sailetako eGelapi bat sortzea, horientzako informazio erabilgarriarekin (IRIari harrera egiteko txostena, izapideentzako epeak..)	Graduondokoko, Giza Baliabideetako eta Ekonomiako Dekanordea
Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa saila Fakultateko Euskara Batzordean integratzeko aukera aztertzea	Euskara eta Nazioarteko Harremanen arloko dekanordea

## 7. BALIOAK


Hurrengo pausua Ikastegiko Balioak berrikusteko hausnarketa estrategiko bat da. Balioak erakunde bat nabarmentzen eta bakarra egiten duten ezaugarriak dira. Egoera desberdinen aurrean duen portaera, jokaera eta hartzen dituen erabakiak bat datoz erakunde baten eta hura osatzen dutenen izaera definitzen duten printzipioekin. Fakultatearen parte diren pertsonak ere balio horiek izan behar dituzte, horiek baitira planifikatutako ekintzak martxan jarriko dituztenak.

Helburu horrekin, eta proposatutako Eginkizuna, Ikuspegia eta Estrategiak kontuan hartuta, ZTF-FCTko Dekanotza taldeak hirugarren Plan Estrategikoan definitutako balioak berrikusi zituen, eta Plan horretan aurrera egiten jarraitzeko egokitasuna aztertu zuen. Hurrengoak dira zehaztutako balioak:

- **Konpromisoa eta erantzukizuna:** betebeharrak bere gain hartzeko prest egotea eta horiek betetzea, egiten edo erabakitzen denari arreta emanez.
- **Malgutasuna eta aldaketara egokitzeko gaitasuna:** behar berriei erantzutearren beste eginkizun batzuetan aritzeko, ohiturak aldatzeko edo prozedurak aldatzeko prest egotea.
- **Berrikuntzaren izenean ekimena, jakin-mina eta bilatzeko gaitasuna:** gauza berriak asmatu edo aurkitu, gauzatu eta errealitatea eraldatzeko erabili nahi izatea eta horretarako prest egotea.
- **Lankidetzeta eta koordinazioa:** helburu bera erdiestearren beste pertsona edo talde batzuekin elkarlanean aritu nahi izatea eta horretarako prest egotea, eraginkortasun eta ordena irizpideak aplikatuta.
- **Komunikatzeko borondatea eta gardentasuna:** gainerakoekin informazioa eta ezagutza konfiantza osoan eta zinez nahi izatea.
- **Kide izatearen sentimendua:** erakundeari nahitasuna hartzea, bere interesak defendatzea eta erakundearen beraren zein ekintzen eta lorpenen kide izateaz harro egotea.

## 8. MAPA ESTRATEGIKOA

Mapa Estrategikoan adierazten da, laburki, Ikuspegi eta Estrategiaren arteko lotura; hau da, ZER eta NOLAaren arteko lotura. Labur adierazten da zeintzuk diren Ikuspegiaren helburuak lortzeko jardura estrategikoak. Helburu estrategikoen eta ikuspegiaren helburuen arteko lotura erakusten da 2. irudian eta modu eskematikoan 1. taulan.



**Irudia 2: Helburu Estrategikoen eta Ikuspegiaren helburuen arteko lotura**

Taula 1: Ikuspegiaren Helburuen eta Helburu Estrategikoen arteko lotura

HELBURU ESTRATEGIKO A		IKUSPEGIAREN HELBURUA				
		Ikasleek bere kalitateagatik eta bere irakaskuntza eskaintza zabalagatik ikastegi bikaintzat hartzea	Komunitate zientifikoak bere ikerketa maila altuagatik eta bere aniztasunagatik aintzat hartzea	Unibertsitate-komunitateak bere kudeaketa aurreratuagatik eta bere etengabeko hobekuntza espirituagatik erreferentziazko fakultatez hartzea	Enplegatzailerik arlo zientifiko eta teknologikoan ematen duen formakuntzagatik erreferentziazko zentrotzat hartzea	Gizarteak unibertsitate ikastegi prestigioztat hartzea
1. ARDATZA. IRAKASKUNTZA	H.E. 1.1. Ikasleen formakuntza sendotzea eta emaitza akademikoak hobetzea	●			●	●
